

AURKIBIDEA

1.- ZIKLOAK, SISTEMAK ETA GAI OROKORRAK

2.- IZEN EMATEA

3.- IBILBIDEA. ETAPAK

Idea-jasa

Entrenamendu fasea

FONO etapa

IKONO etapa

MITO etapa

4.- EPEAK

5.- EBALUAZIOA

6.- PUNTUAZIOA

7.- BALIABIDEAK

8.- INFORMAZIO GEHIAGO



1.- ZIKLOAK, SISTEMAK ETA GAI OROKORRAK

LEHEN HEZKUNTZA

- NEO sstm. (6-9 urte): Berrikuntza zientifikoa eta Ingurumena.
- FISIO sstm. (9-12 urte): Berrikuntza zientifikoa eta Ingurumena.

DBH

- GLOS sstm. Berrikuntza hiritarra: parte-hartze aktiboa.

BATXILERGOA

- LOGO sstm. Berrikuntza kultural-artistikoa.

HEZIKETA ZIKLOAK

- TEKHNE sstm. Berrikuntza teknologikoa eta Gizartea.

2.- IZEN EMATEA

Izen ematea zabalik egongo da Kosmodisearen III. edizioa amaitu bitartean (2009ko apirila arte).

Taldeak osatzeko baldintzak honakoak dira:

- Gutxienez lau ikaslez osatuak izango dira.
- Irakasle berak talde bat baino gehiago tutorizatu dezake.
- Taldeek irakasle bat baino gehiago izan dezake, baina irakasle bakoitzeko gutxienez lau ikasle egon behar dira. Adibidez: 12 pertsonaz osatutako taldean, gutxienez irakasle bat egongo da, eta gehienez, hiru.

3.- IBILBIDEA

Idea-jasa

Kosmodisearen III. edizioan proiektuak garatuko dira; hortaz, proposatutako ideiek proiektu forma izan behar dute. Talde bakoitzak hiru ideia proposatuko ditu. Sistema bakoitzeko ideia irabazlea planeten etapan landuko da.

Idea-jasan parte hartzeko dinamika honako hau izango da:

- Talde bakoitzak **gehienez hiru ideia** proposatuko ditu. Ideia horiek taldeari dagokion zikloko gai orokorrarekin izango dute zerikusia, eta izenburua eta deskribapena erantsiko zaie.
- Taldeko **tutorearen ardura ideiak balioztatzea** izango da.
- Ideien bozketa **urriaren 27tik 31ra** egingo da. Azaroaren 3an jakingo da zein den ziklo bakoitzeko ideia irabazlea.
- Ideiak **bozkatzeko sistema** hau da:
 - o Talde bakoitzak 9, 3 edo 1 puntu eman beharko dizkie bere sisteman proposatu diren ideietatik gehien gustatu zaizkien 3ei.
 - o Aurten, irakasleek ere parte hartuko dute bozketan.

Oharra:

- Taldeek eta irakasleek ezingo dituzte beren ideiak bozkatu, ezta beren ikastetxeko taldeek proposatu dituztenak ere.
- Ideia irabazlea puntu gehien jaso dituen izango da. Bi ideiek puntu kopuru bera lortzen badute, botoa eman dioten talde kopuruaren baitan hautsiko da berdinketa.
- Kontrol Dorreak ezabatu egingo ditu desagokiak diren ideiak edo gaiarekin zerikusirik ez dutenak.

Entrenamendu etapa

Planeten etapei ekin aurretik, taldeek entrenamendu txiki bat egiteko aukera izango dute, planeten etapetan erabiliko diren programak deskargatu eta haiekin ohitzeko. Bestek beste, simulatzailearen demo batekin jolastuko dute, ideiei buruzko informazio gehiago bilatuko dute baita aurreko edizioetako lanei buruz.

Idea jasa eta entrenamendua amaitu ondoren, taldeek hiru etapa egingo dituzte:

Fono etapa. Taldeek proiektuaren beharra eta aukera definitu behar dute. Azken emaitza audio formatuan zabaldu beharko dute.

Ikono etapa. Proiektua planifikatu, garatu eta gauzatu behar dute. Gero, irudi bidez aurkeztu behar dute.

Mito etapa: Helburua proiektua promozionatzea eta zabaltzea da. Ikus-entzunezko hizkuntza erabiliz zabalduko dute.

Fono, Ikono eta Mito etapetan parte hartzeaz gain, **simulatzaillean** jardun behar dute zenbait erabaki hartuz.

Simulatzaillea 3 planetetan jolastu beharreko atala da. Taldeek planeta bakoitzean erabakiak hartu behar dituzte Kosmodiseako koadrilari (Psi, Nu, Iota, Ro eta Lambda) planetarteko bidaian laguntzeko. Helburua hurrengo planetara iristea izango da, betiere koadrilak talde-lanean jardunez gero eta osasuna eta asebetetze maila erabatekoa izanez gero.

Simulatzaillea sistema bakoitzera dago egokituta: maila bakoitzak aldagai kopurua jakin bat izango du. Zikloetan aurrera egin ahala, aldagai kopurua handitu egiten da.

4.- EPEAK

IZEN EMATEA

Zabalik dago 2008ko irailaz geroztik eta hala egongo da Kosmodisearen III. edizioa amaitu arte (2009ko apirila).

IDEIA-JASA

Ideiak proposatzeko epea irailaren 22an hasi eta urriaren 31ean amaituko da.

ETAPAK

Entrenamendua: 2008ko azaroaren 3tik abenduaren 1era

Fono: 2008ko abenduaren 1etik 2009ko urtarrilaren 23ra.

Ikono: 2009ko urtarrilaren 26tik martxoaren 6ra.

Mito: 2009ko martxoaren 9tik apirilaren 10era.

LANAK BLOGETAN IGOTZEKO AZKEN EGUNAK

Lanek jarraian azaltzen diren egunetarako egon behar dute blogean ikusgai.

Fono: 2009ko urtarrilaren 16a.

Ikono: 2009ko otsailaren 27a.

Mito: 2009ko apirilaren 3a.

EBALUAZIOAK

Fono planeta: 2009ko urtarrilaren 19tik 23ra.

Ikono planeta: 2009ko martxoaren 2tik 6ra.

Mito planeta: 2009ko apirilaren 6tik 10era.

EKITALDIA

Oraindik ez da zehaztu noiz egingo den, baina, ziurrenik, 2009ko apirilaren amaieran edo maiatzaren lehen astean egingo da.

5.-EBALUAZIOA

Ebaluazio prozesuan, taldeek lau atal ebaluatzetik eskuratuko dituzte puntuak. Ebaluazioa kultura ekintzailearen balioak kontuan izanik egingo da.

- 1.- **Autoebaluazioa.** Ikasleek beren lana ebaluatuko dute taldearen gakoak erabiliz eta errazten zaizkien irizpideak jarraituz.
- 2.- **Talde-lanaren ebaluazioa.** Taldekide bakoitzak, bere gako indibiduala erabiliz, talde lanean nola jardun duten baloratu beharko du.
- 3.- **Beste taldeen ebaluazioa.** Talde bakoitzak beste lau talderen lanak errebisatu eta ebaluatu beharko ditu. Sistemak esango die zer lau talde ebaluatu. Puntuazio txikienetik handienera ebaluatu beharko dituzte.
- 4.- Talde bakoitzak hainbat erabaki hartu beharko ditu simulatzailean. Zer erabaki hartzen dituen, puntuazio bat edo beste lortuko du. Puntuazio minimoa lortzeko, erabaki guztiak hartu behar ditu gutxienez.

6.-PUNTUAZIOA

PLANETAK	BALIOA
FONO PLANETA	% 20
IKONO PLANETA	% 35
MITO PLANETA	% 45

PROBAK	BALIOA
AUTOEBALUAZIOA (KQ)	% 25
BESTE TALDEEN EBAL.	% 35
TALDE-LANA	% 25
SIMULATZAILEA	% 15

Hurrengo tauletan planeta bakoitzean eta, hortaz, proba bakoitzean zenbat puntu lor daitezkeen zehazten da.

FONO	MAX.	MIN.
AUTOEBALUAZIOA (KQ)	300	90
BESTE TALDEEN EBAL.	420	126
TALDE-LANA	300	90
SIMULATZAILEA	180	54
GUZTIRA	1.200	360

IKONO	MAX.	MIN.
AUTOEBALUAZIOA (KQ)	525	157,5
BESTE TALDEEN EBAL.	735	220,5
TALDE-LANA	525	157,5
SIMULATZAILEA	315	94,5
GUZTIRA	2.100	630

MITO	MAX.	MIN.
AUTOEBALUAZIOA (KQ)	675	202,5
BESTE TALDEEN EBAL.	945	283,5
TALDE-LANA	675	202,5
SIMULATZAILEA	405	121,5
GUZTIRA	2.700	810

LABURPENA	MAX.	MIN.
FONO	1.200	360
IKONO	2.100	630
MITO	2.700	810
GUZTIRA	6.000	1.800

Penalizazioak

Lanak blogean igotzeko epeak betetzen ez dituzten taldeek edo ebaluaketak osatzen ez dituztenek penalizazioak izango dituzte. Penalizazio hauek planetaren pisuaren % 10ekoak izango dira. Hala gertatuz gero, Kontrol Dorreak egingo ditu talde horiei dagozkien ebaluazioak, simulatzailearena izan ezik, eta talde-lanari dagokionez gutxienerako puntuazioa emango die.

PLANETAK	PENALIZAZIOA
FONO	120
IKONO	210
MITO	270

7.- BALIABIDEAK

Eta bakoitzean bost geltoki daude. Geltokietan, eginbeharrak aurrera ateratzeko laguntza guztiak aurkituko dituzte parte-hartzaileek.

- 1.- **Misio Geltokia:** Betebarreko bi proba nagusiak daude: simulatzailea eta kosmoquesta.
- 2.- **Argitaletxe Geltokia:** Wikia eta bloga aurkitzen dira hemen. Wikia barne erabilerarako da, eta bloga proiektua argitaratzeko.
- 3.- **Liburutegi Geltokia:** Gidaliburuen geltokia da: programak nola erabili, simulatzailea nola, lan-taldean aritzeko gidak...
- 4.- **Ebaluaketa Geltokia:** Espazio honetan taldeek ebaluazioak egingo dituzte: autoebaluazioa, talde-lanarena eta gainerako lau taldeena.
- 5.- **Kosmogune geltokia:** Ikasleek eta irakasleek dituzten zalantzak edo iritziak argitaratzeko gunea da.

8.- INFORMAZIO GEHIAGO

Kosmodiseari buruz informazio gehiago jakin nahi baduzu, deitu 900 840 842 telefonora edo kontsultatu www.kosmodisea.net web orria.

